

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2021 000004710

Espediente-zenbakia: 2021/IDA\_ERA\_0265

**Xedea**

**Tokiko enpresek**, Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik dirulaguntzaren oinarriak eta deialdia onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, Busturialdeko Udalen izenean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2021eko laguntzen eskaera egin du eta horren ebazpena, Busturialdeko enpresei kontrataziorako dirulaguntzak emateko, jaso du.

Bigarrena: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzak (2021eko ekainaren 16ko ebazpen bidez argitaratuak (EHAA, 128 zk., 2020ko ekainaren 30ekoa) adierazten duten moduan, Bermeoko Udalak Busturialdeko enpresei kontrataziorako dirulaguntzak emateko, dirulaguntzen lerro bat sortu egin behar du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ebazpenaren 6.2.3 artikulua dioen moduan.

Hirugarrena: Proposatzen den dirulaguntza honen bidez, Tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak ohiko lan-merkatuan kontratatzea lortu nahi da; eta era berean kontratazio-kostuaren zati bat dirulagunduz.

Laugarrena: 2021eko abenduaren 1ean, Behargintzako arduradunak justifikatze memoria egin du.

Bosgarrena: 2021eko abenduaren 9ean, Bermeoko Udaleko idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko teknikariak txostena egin du.

Seigarrena: 2021eko abenduaren 16an, Bermeoko Udaleko Kontu hartzaileak txostena egin du.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E50008571E00S0B8E8X9Q1A2

**Sinadurea eta data**ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 20/12/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/12/2021  
09:29:45EXPEDIENTE ::  
2021IDA\_ERA\_0265

Data: 01/12/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

## Argudioak

**Lehenengoa:** Proposatzen den dirulaguntza bideratzeko oinarriak prestatu dira; Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntzak (2021eko ekainaren 16ko ebazpen bidez argitaratuak (EHAA, 128 zk., 2020ko ekainaren 30ekoa) adierazten duten moduan.

**Bigarrena:** Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta bere Erregelamenduak araututakoa izango da aplikagarria sustapen ekimen honetan.

**Hirugarrena:** Dirulaguntzaren helburua, alde batetik, enpresa-ehunari laguntzeko neurri desberdinak hartzea, eta bestetik, Busturialdeko langabetuei, aukerak ematea Busturialdeko enpresetan lan egiteko eta ondorio ekonomiko eta sozialak arintzeko.

**Laugarrena:** Kreditua dago 01000-43300-4710003 aurrekontu partidan.

**Bosgarrena:** Oinarri Espezifikoak onartzeko ahalmenari dagokionez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituz 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluekin bat, Osoko Bilkurari dagokio, baina urtea amaitu baino lehenago onartu eta argitaratu behar direnez, premiatasunez, alkatetza dekretuz onartzea proposatzen da, hurrengo Osoko Bilkuran berretsi behar izatearen kalterik gabe.

## Erabagia

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dut:

**LEHENENGOA:** Tokiko enpresek Lanbiden enplegu-eskatzaille moduan izena emanda dauden Busturialdeko langabeak kontratatzeagatik dirulaguntzaren oinarriak (I. eta II. Eranskinak barne) eta deialdia onartzea, premiatasunez.

**BIGARRENA:** Diru laguntzen datu base Nazionalak eskatutako informazioa jakinaraztea Datu baseari.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau hurrengo Osoko Bilkura bideratzea, berretsi dadin.

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .

**Sinadurea eta data**